




Proletarii, duela 2.000 urte eta orain



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Erroma, K.o. II. mendea. Aulus Gellius abokatu eta idazleak *Atikako gauak* obra osatu zuen Marko Aurelioren agintaldian. Idazlearen obra ezagun bakarra da eta bertan jaso zituen inguruan entzuten zituen eta liburuetan irakurtzen zituen orotariko kontuak: historia, geometria, gramatika, filosofia... Horri esker galdutako hainbat obra eta dokumenturen berri iritsi zaigu. Lan horretan behin baino gehiagotan agertzen da *proletarii* hitza: Hamabi Taulen Legeari erreferentzia egiten dionean agertzen da, adibidez, eta metaforikoki ere erabiltzen du goi mailako idazleek ari denean, behe mailakoak deskribatzeko. Izan ere, *proletarius* hitza *proles*-etik dator –leinua edo ondorengoak, latinez– eta “haurrak egiten edo zaintzen dituen” esan nahi du.

Terminoia Errepublikara garaietan sortu arren, Erromatar Inperioan hartu zuen indarra. Inolako ondasunik ez zeukaten herritarrek erroldan seme-alabak erregistratzen zituzten eta, hala, proletarioek erromatar gizarteko seigarren taldea, klaserik baxuena osatzen zuten, eta haien ekarpen bakarria erromatar armadarako soldaduak ekoiztea zen.

Erdi Aroan erabiltzeari utzi arren, XVI. mendeko Ingalaterran agertu zen, berriro klaserik baxuena izendatzeko. Eta Frantziako Iraultzan ñabardura berriak erantsi zizkieten: proletarioak eskubiderik gabeko langileak ziren, baina beren egoeraren kontzientzia zutenak. XIX. mende hasieran, Henry de Saint Simon-entzat



CHIARAMONTI MUSEOA

Haurrak erromatar sarkofago batean. Antzinako Erroman *proletarii* zeritzenak haurrak egiteko ahalmena besterik ez zeukaten herriarrak ziren eta klase sozial baxuena osatzen zuten.

jabetzarik gabeko masa ziren, eta Louis A. Blanqui-k kapitalisten antagonistatzat jo zituen. Jakina, urte batzuk geroago, Friedrich Engels eta Karl Marxek nabarmendu zuten antagonismo hori. *Manifestu komunista*-n proletariotza ekoizpen bitartekoen jabetzarik ez duen klase soziala da, bere lan indarra besterik ez duena.

Hala ere, jatorri etimologikoa ez zuen galdu terminoak; estatu proletarioan, emakumeek beren gorputzaren eta ugalketaren kontrola izango zuten. Leninek berak, esaterako, Urriko Iraultza baino lehen ere, abortuaren aldeko aldarria egin zuen, eta 1920an Sobietar Batasuna izan zen abortua legalizatzen lehena.

Gizarte postindustrialean, proletarioak beste termino batzuekin bat egin du: egungo proletarioak “kognitarioak” dira maiz, ezagutza besterik ez dutenak, ezagutza baita merkatu berrien lan indarra. Edo “prekario” hitza ere proletarioaren sinonimo bihurtu da, lan segurtasunik eta eskubiderik eza medio.

Baina proletariotzaren zentzu erromatarra indar betean da. Berriki AEBko Auzitegi Gorenak ahalbidetuta, hainbat estatuk atzera abortua debekatzea eta zigortzea erabaki dute. Beste ondasunik ez duten emakumeak ekoizpen bitarteko hutsak dira, XXI. mendeko inperioen legioak elikatzeko erabiltzen direnak. ●



KARL BRYULLOV

Vesuvio ez zen abuztuan lehertu

Plinio gazteak Tazitori idatzitako gutun batean aipatzen da Pompeia eta Herkulano suntsitu zituen Vesuvioren erupzioa 79. urteko abuztuaren 24an izan zela. Baina gutuna ez da originala, Erdi Aroko kopia bat baizik, eta hainbat adituk zalantzan jarri izan dute data hori, besteak beste, aztarnategian intxaurrak, gartzainak, granadak eta udazkeneko

beste fruitu batzuen arrastoak aurkitu izan dituztelako. Orain, Italiako ikerlari talde batek data bi hilabetez atzeratu du, 79ko urriaren 24ra, eta horretarako froga argi eta sinplea baliatu du: Pompeiako etxe bateko horman ikatz-ziriz egindako inskripzio bat topatu zuten 2018an, 79ko urriaren 17ko data idatzita daukana. ●